



Gorilak Lainoetan Dian Fossey

Itzultzailea: Koro Navarro
Zuzentzailea: Iñaki Seguro

“O, Dian Fossey: zure oinek oinkatutako lurra musukatu egiten dugu”. Holaxe laburbil nezake liburuak eragin didan inpresioa.

Ondorioren bat atera beharko banu, hauxe litzateke bat: espezieaz haratago, indibidualtasuna badagoela, eta horrek, gizakiarentzat ez ezik, animalia-espezieentzat ere balio duela, batez ere gehien

eboluzionatu duten espezieez ari garenean –edota horien gaineko behaketak, behintzat, horrela frogatzen digunean.

Noski, goian esandakoaren haritik, galdera potolo bat planteatu genezake: zeintzuk dira behatu dezakegunaren mugak?

Egia esateko, gaur egun ez zaigu iruditzen hain ikuspegi berria denik, baina bere garaian Dian Fossey-ren lan honek zalaparta handia sortu zuen arloko adituen artean; eta gorila-talde bakoitzaren gaineko ikuspegiagatik soilik ez. Izan ere, gorila-talde batean kide bakoitzaren nortasuna oso ondo definituta dago eta... ikaragarri gogorazten digu gizakiaren izaera. Segur aski, horixe izango da Dian Fossey-ren bigarren ekarpen handia: beste urrats bat gehiago eman izana gizakiaren ulerkuntzan eta historian zehar jarraitu duen eboluzioan.

Itzulpenari dagokionez, denok badakigu Koro Navarro nor den; liburuaren zuzentzailea ere ezaguna zaigu, Iñaki Seguro. Ahalmen handiko “bikote” bat osatu dutela ez dago dudarik, ez horixe.

Bestalde, Koro Navarrok bere paletan ez ditu kolore asko erabiltzen, baina erabiltzen dituenak ondo, oso ondo erabiltzen ditu: ziurtasunez eta zehaztasunez. Eta horren ondorioz, ondo erroturiko hizkuntza-jeinu bat helarazi ohi du bere itzulpenetan. Apur bat matematikoa da akaso, apur bat hotza, urruna, baina esan bezala, zehatza, ziurra eta bere buruaz oso segurua. Nik asko estimatzen dut.